

**EMAKUME ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO II. PLANA  
ZIZUR NAGUSIA  
(2016-2019)**



## AURKIBIDEA

1.	SARRERA .....	2
2.	ARAUDI MARKOA.....	3
3.	BERDINTASUNERAKO PLANAREN METODOLOGIA .....	4
4.	BERDINTASUNERAKO PLANAREN EGITURA .....	4
5.	ABIARAZTEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO SISTEMA.....	38
6.	1. ERANSKINA - Neurrien Jarraipen/Ebaluazio Fitxak .....	41
7.	2. ERANSKINA- Jarduketan laburpen koadroa / Berdintasunerako Planaren Kronograma .....	43

### 1. SARRERA

Zizur Mayor-Zizur Nagusia udalerririk 2005. urtetik hainbat jarduketa garatu ditu emakume eta gizonen arteko berdintasun politiken eremuan. Urte hartan udalerriko gizon eta emakumeen egoera sozioekonomikoaren Diagnostika egin zen, eta bertan Aukera Berdintasunerako I. Plana onartu zen.

Jarduketa guztiak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren laguntzarekin egin ziren.

Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa 2015ean egin zen, eta prozesua eta emaitzak "Zizur Nagusiko Udalaren Berdintasunerako I. Planaren Ebaluazio Txostena" dokumentuan jaso ziren.

Egun, Zizur Nagusiko Berdintasunerako II. Plana egiten ari garenean, -hamar urte iragan dira I. Plana onartu zenetik- Zizur Nagusiak 14.674 biztanle ditu, horietatik 7.437 emakumezkoak dira, eta 7.237 gizonezkoak. *(Iturria: udal erregistroa, 2016ko otsailaren 1ean).*

Emakume eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren erredakzioan, Zizur Nagusiko eremu politiko eta teknikoko 35 lagunek egindako ekarpenak jaso

ditugu, Berdintasun Teknikariak koordinatuta, eta gure helburua datozen lau urteetako tokiko berdintasun politika definitu eta zehaztuko duen oinarrizko dokumentua sortzea da.

Era berean, Zizur Nagusiko Berdintasunerako II. Plana Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, Nafarroako Berdintasun Teknikariek in batera, 2014. urtean zehar sortutako "Udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko libilbidea" agirian kokatzen eta oinarritzen da.

Libilbide hori toki erakundeentzat berdintasun alorrean esku hartzeko eredu berria da.

Berdintasunerako II. Plana sortzeko laguntza teknikoa Equala Inicativas SL Aholkularitzari egokitu zaio.

## 2. ARAUDI MARKOA

Araudi zabala dago emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez, giza eskubideen defentsan kokatutako zuzenbide printzipio unibertsala den neurrian.

Hona hemen zenbait erreferentziako araudi garrantzitsu:

- **Nazioarte mailakoak:** Nazio Batuen Gutuna (1945), Emakumearen Aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Nazio Batuen Konbentzioa (1979). Emakumeen lau Mundu Konferentziak (1975, 1980, 1985 eta 1995)
- **Europar Batasun mailakoak:** Erromako Ituna (1957) eta Amsterdameko Ituna (1997)
- **Estatu mailakoak:** Espainiako Konstituzioa (1978), abenduaren 22ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei Buruzkoa, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.

- **Foru mailakoak:** 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzekoa. 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.
- **Toki mailakoak:** "Udal Ordenantza, Zizur Nagusiko udal esparruan hizkera ez-sexistaren erabilera eta komunikazio barneratzailearen sustapena arautzendituen" (Zizur Nagusiko Udala, 2015eko uztailaren 28ko NAO)

### 3. BERDINTASUNERAKO PLANAREN METODOLOGIA

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko erronkei buruzko hausnarketa eta azterketaren fruitua da.

35 politikarik eta teknikarik parte hartu dute -28 emakume eta 7 gizon- Berdintasun II. Plan honen lanketa eta azken erredakzioan.

Plana egiteko, lehenengo eta behin, aurreko Planaren ebaluazio prozesuan ateratako ondorioak aztertu dira.

Era berean, prozesu osoan zehar lan, jarraipen eta koordinazio bilerak burutu dira Berdintasun Teknikariarekin.

Azkenik, bi parte-hartze saio burutu dira, genero-berdintasun sailletako ekarpenak jasotzeko, honako taldeekin:

- Politikarien taldea
- Teknikarien taldea

### 4. BERDINTASUNERAKO PLANAREN EGITURA

Zizur Nagusiko Berdintasunerako II. Plana Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (Nafarroako Gobernuak), Berdintasun Teknikariarekin batera, 2014

urtean zehar sortutako "Udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko libilbidea" agirian oinarrituta diseinatu da.


Aipatutako agirian azaltzen den bezala, Zizur Nagusiko Berdintasun Alorra izango da berdintasunerako libilbide hori bultzatu, koordinatu eta kudeatzeko egitura, eta bere lana ezinbestekoa izango da aldaketa eta eraldatze prozesuak udalerrian sortzeko, hiritarrendandik hurbilen dagoen esku-hartze markoan, hain zuzen.

Genero-berdintasuna txertatzea ez dagokio alor zehatz bati, hainbat interes talderen esku-hartzea behar du (Alkatetza eta talde politikoak, Udal Idazkaritza, Kontu-hartzailtza, alorretako arduradunak, langileen legezko ordezkariak, etab.); izan ere, udal alor guztietako kideei dagokie politika publiko guztien diseinu, planifikazio eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatuz joatea.

### ***Ilibidearen esku hartzeko eredua:***

Berdintasunerako II. Plana Berdintasun Alorrak esku hartzen duen lau eremutan dago egituratuta, bakoitzerako honako eskema jasotzen da: ildo estrategikoak, programak eta, azkenik, helburuak, jarduketak eta ebaluatzeko adierazleak.

### **Egitura:**



#### **Esku hartzeko eremuak:**

Planak lau eremu jasotzen ditu, udaleko berdintasun alorraren lana hedatzeko: "Toki gobernamentua eta genero-zeharkakotasuna", "Emakumeen aurkako indarkeria", "Zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak bateratzea", eta, azkenik, "Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa".

#### **Ildo estrategikoak eta lehen mailak:**

Esku hartzeko eremu bakoitzaren lana planifikatzeko, Ibilbideak zenbait ildo estrategiko zehazten ditu. Ildo bakoitzak lan programa ezberdinen norabidea eta orientazioa zehazten ditu.

Gainera, zenbait lehen maila daude txertatzeak zentzua izan dezan. Hiru maila daude, eta ildoak maila horien arabera egituratzen dira.

Esku-hartzearen I. maila betetzen ez bada, ez dago baldintzarik II. mailara igarotzeko. II. maila ez bada neurri handi batean bete, hobe da III. mailara ez

igarotzea. Maila baxuagoetan abiatutako jarduketak eta sendotze fasean daudenak ere landuko dira maila aurreratuenetan aldi berean.

I. ildo estrategikoko jarduketek I. mailako lehentasuna dute, II. ildokoek II. mailakoa, eta horrela hurrenez hurren.

<p align="center"><b>Esku hartzeko eremua 1: Toki gobernandua eta genero- zeharkakotasuna</b></p>	<p align="center"><b>Esku hartzeko eremua 2: Emakumeen aurkako indarkeria</b></p>
<p>1. Ildo estrategikoa: genero-berdintasunerako tokiko egiturak.</p> <p>2. Ildo estrategikoa: trebakuntza tekniko eta politikoa genero-ikuspegi osoa udalerrian txertatzeko.</p> <p>3. Ildo estrategikoa: Udaleko lan-prozedurak emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasunerako printzipioaren arabera.</p> <p>4. Ildo estrategikoa: genero-berdintasuna, udalerriko garapen iraunkorraren alderdi moduan.</p>	<p>1. Ildo estrategikoa: emakumeen aurkako indarkeria udalerrian.</p> <p>2. Ildo estrategikoa: indarkeriarik gabeko bizitza emakumeentzat.</p>
<p align="center"><b>Esku hartzeko eremua 3: zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak bateratzea</b></p>	<p align="center"><b>Esku hartzeko eremua 4: emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa</b></p>
<p>1. Ildo estrategikoa: herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea, zaintzaren etika garatuz eta emakumeek eta gizonek lana, familia eta norberaren bizitza erantzunkidetasunez bateratuz.</p> <p>2. Ildo estrategikoa: denborak, espazioak eta zaintzak kudeatzeko eredu berriak udalerrian.</p>	<p>1. Ildo estrategikoa: emakumeen herritartasun osoa, ahalduntzearen bitartez.</p> <p>2. Ildo estrategikoa: emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio soziala, gizartearen balioak eraldatuz.</p>



**Lan programak:**

lido bakoitzerako lan programak udalerrian eta udalerritik genero-berdintasuna bultzatzeko ekintza-planak dira. Programa bakoitzak helburuak, jarduketak eta helburuak ebaluatzeko adierazleak biltzen ditu.

**Jarduketak:**

Programa bakoitzaren baitan gauzatuko diren jarduketak daude.

**Urteko programazioak:**

Berdintasunerako Plana urtero "urteko programazio" batean agertu eta zehaztuko da. Programazio hori Berdintasun Alorrak uneko urteko azken hiruhilekoan landuko du, aipatutako lehentasun mailen arabera.


**Denborak eta aurrekontua:**

Plan honen iraupena lau urtekoa izango da, 2016-2019. Jarduketa bakoitzean betetzeko epe bat ezarriko da.

Era berean, "Ebaluaziorako sistema" atalean, jarduketak ebaluatzeko epeak eta uneak ezarriko dira.

Berdintasun Alorrak, urtero, udal aurrekontu osoaren % 1eko partida izango du.

GRAFIKO LABURPENA



Laburpen grafikoa. Iturria: "Udaletako berdintasun alorren lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea"

**Berdintasunerako II. Plana ZIZUR NAGUSIKO UDALA  
(2016-2019)**

ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna						
1. ILDO ESTRATEGIKOA.- GENERO-BERDINTASUNERAKO UDAL EGITURAK						
1. Programa. Genero-berdintasunerako udal alor eta unitateak						
2. Programaren Helburua:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaletxean genero-mainstreamingaren estrategia sustatzeko eta zilegiztatzeko baldintzak sortu, berdintasun alorra sendotuz.</li> </ul>						
JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Berdintasun Alorra mantentzea bermatu, Alkatetzaren menpe, giza eta diru baliabideekin, handik emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako jarduketak bultzatu eta koordinatzeko.	- Udaleko berdintasun alorra osatzen duten sexu bakoitzeko pertsonen kopurua, maila eta kontratu motak. - Berdintasun alorrari esleitutako aurrekontu orokorraren portzentajea.	ALKATETZA ETA BERDINTASUN BATZORDEA				
2. Udaleko Barne Kudeaketa Batzordea sortu (BKB) Berdintasunerako Plana bultzatzeko eta koordinatzeko, udal jarduketa guztietan zeharkakotasunez genero-ikuspegia ezartzeko.	Alorarteko Batzordeak urte bakoitzean egindako bilera kopurua, bertaratutakoen alorra eta sexuaren arabera adierazita.	BKB				

3. Zizur Nagusiko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin.	Diagnostikoa egin	BERDINTASUN ALORRA					
--	-------------------	--------------------	--	--	--	--	--

ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna						
2. ILDO ESTRATEGIKOA.- TREBAKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO-MAINSTREAMING ESTRATEGIA TOKI ERAKUNDEAN TXERTATZEKO.						
2. Programa. Prestakuntza espezializatua <i>mainstreaminga</i> edo genero-ikuspegi integratua txertatzeko.						
2. Programaren Helburuak:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaleko langile tekniko eta politikoen udal txetan genero-<i>mainstreaminga</i> burutzen lagundu dezaten baldintzak sortu.</li> <li>• Udaleko langile teknikoak gaitu, genero-ikuspegi integratua txertatzeko euren udaleko lan alor eta arduretatik abiatuta.</li> </ul>						
JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Politikariei zuzendutako etengabeko prestakuntza Plana, genero- <i>mainstreamingaren</i> edukia eta bere aplikazioak udalerrian duen eragina.	- Formakuntza Plana egotea - Udaleko politikariek urtean egindako formakuntza orduak, sexua eta alorraren arabera.	BERDINTASUN ALORRA ETA BKB				
2. Genero- <i>mainstreaminga</i> aplikatzeko ardura zuzena duten udal teknikariei zuzendutako etengabeko prestakuntzarako Plana.	- Formakuntza Plana egotea - Udaleko teknikariek eta politikariek urtean egindako formakuntza orduak, sexua eta alorraren arabera.	BERDINTASUN ALORRA ETA BERDINTASUN BATZORDEA				

ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna						
3. ILDO ESTRATEGIKOA.- UDALEKO LAN-PROZEDURAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA, BERDINTASUNERAKO PRINTZPIOEN ARABERA.						
3. Programa. Genero-ikuspegia udal araudiak sortzean, baita toki erakundeetan garrantzi eta eragin berezia duten plan, programa eta egitasmoetan ere.						
3. Programaren Helburua:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bermatu toki erakundetik bultzatutako arauak, planek programek eta egitasmoek emakumeei eta gizonei modu baztertzailan ez eragitea, eta udalean eragin ona izatea, genero-berdintasunari dagokionez.</li> </ul>						
JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Datu bilketarako prozedura eta sistema informatikoa egokitu, datu guztiak udal alor guztietan sexuaren arabera bereizita lortu ahal izateko.	Datu bilketan eta sistema informatikoetan hobekuntzak egin.	BKB				
2. Sexuaren aldagaia gehitu udalean dauden edo udalak sortutako ikerketa, txosten eta informazio estatistiko guztietan. Era berean, udal kudeaketa prozesuen arduradun diren informazioaren teknologiko enpresak administrazioaren modernizazioan inplikatu; baita arauak, planak, programak edo egitasmoak, generoari dagokionez ere, egokiak diren aztertzeke.	Sexuaren aldagaia jasotzen duten azterlan, ikerketa, txosten eta informazio estatistikoaren kopurua, udalean orotara egindakoaren kopuru osoarekin alderatuta.	UDAL ALOR GUZTIAK				
3. Udaleko araudian eta garrantzi bereziko planetan, programetan eta egitasmoetan, genero-eraginari buruzko txostenak sortzeko prozedura diseinatu, NFBIn prozedura zehatza erreferentzia harturik.	Genero-txostenak egiteko diseinatutako prozedura.	BERDINTASUN ALORRA ETA BKB				

4. Genero-eraginari buruzko txosten bat egin udaleko araudia, eta garrantzi eta eragin bereziko planak, programak eta egitasmoak egin aurretik.	Genero-eraginari buruzko txostena eginda duten arau, plan, egitasmo eta programen kopurua, udalak orotara egindakoen kopuru osoarekin alderatuta.	UDAL ALOR GUZTIAK				
---	---	-------------------	--	--	--	--

ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna						
3. ILDO ESTRATEGIKOA.- UDALEKO LAN-PROZEDURAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIBIOEN ARABERA.						
4. Programa. Aurrekontuen planifikazioa eta ebaluazioa.						
<p>4. Programaren Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko berdintasun politikak bultzatu ahal izateko baldintzak sortu.</li> <li>• Aztertu toki erakundearen aurrekontuak modu ezberdinean edota baztertzailan eragiten dien emakumeei eta gizonei.</li> <li>• Lagundu tokiko erakundearen aurrekontuan berdintasun handiagoa egon dadin.</li> </ul>						
JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Berdintasun arloan udalaren jarduketak bultzatzeko, aurrekontu osoaren %1eko diru-esleipena ezarri.	Toki erakundearen urteko aurrekontuaren portzentajea, genero-berdintasuna lortzea helburu duten jarduketak	ALKATETZA ETA BERDINTASUN BATZORDEA				

	bultzatzeko					
2. Kontu-sail zehatzen batetik abiatuta, udal aurrekontuaren genero-eraginari buruzko txostena egin.	- Urteko aurrekontuaren genero-eraginaren txostena (GET) egotea. - Aurrekontuaren kontu-sailaren bateko GET bat egotea.	INPLIKATUTAKO ALORREN KONTU-HARTZAILEA ETA ARDURADUNA				

**ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna**

3. ILDO ESTRATEGIKOA.- UDALEKO LAN-PROZEDURAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZPIOEN ARABERA.

5. Programa. Langileen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea.

5. Programaren Helburua:

- Udaleko langileen aukeraketa eta sustapen prozesuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, baita langileen kudeaketarako politika orokorrean ere, besteak beste, lan-osasuna eta kontziliazioa.

JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Azterketa zehatza egin, eta udaleko langileen aukeraketa eta sustatze prozesuetan hobekuntzak hauteman, baita langileen kudeaketarako politika orokorrean ere, lan osasuna eta eginkizunak bateratu.	Azterketa txostena egotea.	BERDINTASUNERAKO BARNE PLANAREN JARRAIPEN-BATZORDEA				
2. Aipatutako txostenaren arabera, hobetzeko esparruak hauteman, genero-ezberdintasun eta bazterkeria egoerei aurrea hartzeko eta egoera horiek zuzentzeko jarduketak abiatzeko.	Zenbat eta zer motatako ekintzak bultzatu diren	BERDINTASUNERAKO BARNE PLANAREN JARRAIPEN-BATZORDEA				

	genero- ezberdintasun eta bazterkeria egoerak zuzentzeko udal langileen artean.					
3. "Sexu jazarpeni eta sexuagatiko jazarpeni aurrea hartzeko eta aurre egiteko Protokoloa" ebaluatu eta hobetu.	Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak burutu.	BERDINTASUNERAKO BARNE PLANAREN JARRAIPEN-BATZORDEA				

ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna						
3. ILDO ESTRATEGIKOA.- UDALEKO LAN-PROZEDURAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZPIOEN ARABERA.						
6. Programa. Informazioaren kudeaketa eta komunikazio politika.						
6. Programaren Helburuak:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal jardueran eta herritarrekiko komunikazioan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin.</li> <li>• Baldintzak sortu, berdintasunaren arloko informazioa udal langileengana eta herritarrengana irits dadin.</li> </ul>						
JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. "Hizkera ez-sexistaren erabilera eta komunikazio barneratzailearen sustapena arautzen dituen Udal Ordenantza" udal langileek zabaltzeko eta ezartzeko, sentsibilizatzeko. Prestakuntza Planarekin jarraitu, bai udal jardueran, bai herritarrekiko komunikazioan.	- Zenbat eta zer motatako barne agindu dagoen hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko. - Zenbat	BERDINTASUN ARLOA/ UDAL ARLO GUZTIAK				



	zuzendutako barne eta kanpo dokumentu dagoen arloka bananduta.				
2. Udal webgune espezifikoak dinamizatu, berdintasun alorrean egiten den lana ikustarazteko.	Berdintasun arloaren udal webgune espezifikoari egindako bisita kopuruaren handitzea.				

ESKU HARTZEKO EREMUA 1. Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna						
3. ILDO ESTRATEGIKOA.- UDALEKO LAN-PROZEDURAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZPIOEN ARABERA.						
7. Programa. Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak.						
7. Programaren Helburua:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-ikuspegia txertatu udalaren kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.</li> </ul>						
JARDUKETAK:	Jarraipen adierazleak:	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Udalaren kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan genero-baldintzak txertatzeko prozedura prestatu.	Landutako dokumentua	BERDINTASUN ALORRA /BKB				
2. BKBren bitartez, lan-talde teknikoa den aldetik, eta kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenak landu eta kudeatzeko ardura duten udal langileek osatzen duten neurrian, arlo horietan genero-ikuspegia txertatu.	BKBk burututako bilera kopurua gai espezifiko horien inguruan, bertaratutakoen adina eta sexua adierazita.	BKB				

3. Udal kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenen genero-eraginaren inguruko txostena egin.	Landutako txostena	BKB				
4. Genero-baldintzak txertatu udalaren kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.	<p>Genero-baldintzak dauzkaten udal kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenen portzentajea, udalean egiten den kopuru osoarekin alderatuta.</p> <p>Zenbat eta zer motatako genero-baldintza txertatzen diren udal kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.</p>	BKB BERDINTASUNERAKO BARNE PLANAREN JARRAIPEN- BATZORDEA				

ESKU HARTZEKO EREMUA 2. Emakumeen aurkako indarkeria						
1. ILDO ESTRATEGIKOA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ERAKUNDEAN						
<ul style="list-style-type: none"> <li>1. Programa. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko udal edota lurralde baliabideak koordinatu, eta hobetu beharreko esparruak hauteman, emakumeen aurkako indarkeriari hobeto aurrea hartu, erantzun eta heltzeko Toki Erakundean.</li> </ul>						
<p style="text-align: center;">1. Programaren Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalaren jarduera eremuan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen koordinazio eraginkorra lagundu, eta mekanismo egokiagoak sortu.</li> <li>Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzean, erantzutean eta heltzean aurrera egiteko esparruak ezarri.</li> </ul>						
JARDUKETAK	Jarraipen adierazleak	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Aurrea hartzeko, hautemateko, aurre egiteko eta deribatze protokolo bat osatu eta martxan jarri. Bertan toki mailan koordinatzeko prozedura definituko da, genero-indarkeriaren inguruan indarrean dagoen araudiaren markoaren barruan, eta emakumeen aurkako indarkeriari Nafarroan erantzuteko eta aurrea hartzeko koordinazio eraginkorrerako erakunde arteko itunaren barruan.	Udalean, emakumeen aurkako indarkeriaren gaiaren inguruan hausnartzeko, koordinatzeko eta hobetzeko esparruak hautemateko baliagarria den udal protokoloa egotea.	BERDINTASUN ALORRA / OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUA/ UDALTZAINGOA/ GAZTE LOKALA				
2. Genero-indarkeriaren inguruko protokolo berezia bultzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatze talde teknikoa osatu.	Talde teknikoaren urteko bilera kopurua, bertaratutakoen alorra eta	BERDINTASUN ALORRA / OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUA/				

	sexuaren arabera adierazita.	UDALZAINGOA/ GAZTE LOKALA				
3. Genero-indarkeria arazoak dituzten emakumeekin zuzenean aritzen diren pertsonak informatu, aholkatu eta koordinazio zuzena egin, arreta eta aurre egitea hobetzeko.	Zenbat eta zer motatako jarduketak egin diren genero-indarkeria arazoak pairatzen dituzten emakumeekin zuzenean aritzen diren pertsonekin.	BERDINTASUN ALORRA				

ESKU HARTZEKO EREMUA 2. Emakumeen aurkako indarkeria						
1.ILDO ESTRATEGIKOA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ERAKUNDEAN						
<ul style="list-style-type: none"> <li>2. Programa. Toki erakundean emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan lan egiten duten udal langileak trebatu.</li> </ul>						
<p style="text-align: center;">2. Programaren Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan lan egiten duten udal langileak trebatu.</li> <li>Emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari ondo egokitzen zaion esku hartzea bermatu. <ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen aurkako indarkeriaren desagertzea agenda politikoan txertatu.</li> </ul> </li> </ul>						
JARDUKETAK	Jarraipen adierazleak	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaian udaleko alor bakoitzean dauden formakuntza beharren diagnostikoa egin.	Landutako txostena	BERDINTASUN ALORRA				
2. Emakumeen aurkako indarkeria hobeto hauteman, informatu, erantzun eta deribatzeko, formakuntzarako udal plana diseinatu, martxan jarri, inplementatu eta ebaluatu.	Formakuntza Plana egotea	BERDINTASUN ALORRA				
3. Udalbatza berriei zuzendutako formakuntza ekintzak diseinatu, emakumeen aurkako indarkeria formak eta horiei aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzeko.	Udaleko teknikariek eta politikariek urtean egindako formakuntza orduak, sexua eta alorra adierazita.	BERDINTASUN ALORRA				
4. NFBI eta beste toki entitate eta erakunde batzuekin batera, udalerrinari edo lurraldeari eragiten dioten emakumeen aurkako indarkeria errealitate zehatzen inguruan, mintegi eta jardunaldi espezifikoak burutu eta parte hartu.	Udaleko teknikariek eta politikariek urtean egindako formakuntza orduak, sexua eta alorra adierazita.	BERDINTASUN ALORRA				

ESKU HARTZEKO EREMUA 2. Emakumeen aurkako indarkeria						
1. ILDO ESTRATEGIKOA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ERAKUNDEAN						
3. Programa. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaian, udaleko eta udalaz gaindiko baliabideak hurbildu, lurraldean ezagunak direla, emakumeengana heltzen direla eta genero-indarkeriaren arazoa pairatzen duten herritarrei egokitzen zaizkiela ziurtatuta.						
3. Programaren Helburuak:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren gaian dauden zerbitzuen eta baliabideen inguruko informazioa emakumeei heltzen zaiela bermatu.</li> <li>• Emakumeen aurkako indarkeriaren gaian dauden baliabide eta zerbitzuak lurraldearen ezaugarrietara eta berezitasunetara egokitzea.</li> </ul>						
JARDUKETAK	Jarraipen adierazleak	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Genero-indarkeriaren gaian arretarako eta babeserako baliabideen mapa toki erakundearen ezaugarrietara egokitu eta hedatu, beharrezkoak eta egokienak diren komunikazio bide eta hizkuntzak erabiliz.	Hedatutako baliabideen mapa.	BERDINTASUN ALORRA / OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUA				
2. Profesionalei, eskumenaren arabera, honakoen inguruko informazioa eman: Gizarte-zerbitzuen Foru Legearen arabera, Nafarroako Gobernuak bermatzen dituen baliabide, zerbitzu eta laguntzak, dauden jarduketa protokoloak, Emakumeentzako Arreta Juridikorako Zerbitzua, emakumeen aurkako indarkeriari erantzuna eta aurrea hartzea modu egokian koordinatzeko Erakundearteko Itunaren jarraipen eta ebaluazio txostenak eta abar.	Zenbat eta zer motatako jarduketak egin diren, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian, udaleko eta udalaz gaindiko	BERDINTASUN ALORRA				

	baliabideak genero-indarkeria arazoak pairatzen dituzten emakumeei heltzeko.					
3. ATENPROren, genero-indarkeriaren biktimak artatzeko eta babesteko telefono bidezko zerbitzuaren funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa.	Egindako balorazio txostena.	BERDINTASUN ALORRA / OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUA / UDALTZAINGOA				
4. Egoera zailean daudentzat, indarkeria sexista edo genero-bazterkeria direla medio, Aholkularitza Psikologikorako Zerbitzua martxan jarri, jarraipena egin, etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzak egin.	- Zerbitzua sortu eta abiarazi. - Urteko memoria egin eta hobetzeko eremuak hauteman.	BERDINTASUN ALORRA				
5. Zizur Nagusiko emakumeentzako Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzak egin.	Urteko memoria egin eta hobetzeko eremuak hauteman.	BERDINTASUN ALORRA				
6. Administrazio eskuduna jakinaren gainean jarri, horretarako ezarritako bideetatik, baliabideak eta zerbitzuak heltzen ez direnean, edo lurraldeko emakumeen errealitateei egokitzen ez zaizkienean.	Zenbat eta zer motatako jarduketak egin diren, emakumeen aurkako	BERDINTASUN ALORRA / OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUA / UDALTZAINGOA				

	indarkeriaren gaian, udaleko eta udalaz gaindiko baliabideak genero-indarkeria arazoak pairatzen dituzten emakumeei modu egokian heltzeko.					
--	--	--	--	--	--	--

ESKU HARTZEKO EREMUA 2. Emakumeen aurkako indarkeria						
2. ILDO ESTRATEGIKOA - INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENTZAT						
1. Programa. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaian prebentzioa eta herritarren sentsibilizazioa.						
1. Programaren Helburua:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, indarkeria gaitzesten duen eta elkarbizitzarako beste molde batzuk sortzen dituen pedagogia landuz, eta baliok, rola eta estereotipoak aldatuz.</li> </ul>						
JARDUKETAK	Jarraipen adierazleak	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Sentsibilizazio kanpaina berezituak antolatu eta horietara atxiki, emakumeen eskubideen sorrera eta ezarpenerako garrantzitsuak diren daten inguruan (martxoak 8, azaroak 25), udaleko hainbat eragile sozialekin elkarlanean.	Zenbat eta zer motatako sentsibilizazio-ekintza burutu diren.  Zenbat lagunek parte hartu duten burututako sentsibilizazio-	BERDINTASUN ALORRA				



	ekintzetan, sexua adierazita.					
2. Jaietan indarkeria sexista prebenitu, hauteman eta salaketaren inguruan sentzibilizatzeko kanpainak burutu.	Zenbat eta zer motatako sentzibilizazio-ekintza burutu diren. Zenbat lagunek parte hartu duten burututako sentzibilizazio-ekintzetan, sexua adierazita.	BERDINTASUN ALORRA				
3. Genero-indarkeria prebenitzen eta gizarteko hainbat sektore (gazteak, emakumeak, gizonak...) sentzibilizatzen lagunduko duten material eta programak diseinatu eta hedatu.	Zenbat eta zer motatako sentzibilizazio-ekintza burutu diren, gizarte sektoreen arabera adierazita.	BERDINTASUN ALORRA				
4. Udalerriko emakumeei zuzendutako autodefentsa-tailerrak burutu.	Zenbat eta zer motatako sentzibilizazio-ekintza burutu diren.  Zenbat lagunek parte hartu duten burututako sentzibilizazio-ekintzetan, sexua adierazita.	BERDINTASUN ALORRA				

5. Hezkidetzarako Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako udal-programaren barruan, emakumeen kontrako indarkeria gaian formakuntza eta sentsibilizazio-ekintzak txertatu, irakasleei, ikasleei eta sendei zuzenduta.	Urteko formakuntza orduak, sexuaren arabera adierazita.	BERDINTASUN ALORRA				
ESKU HARTZEKO EREMUA 3. Zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak bateratu						
1. ILDO ESTRATEGIKOA.- HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA ZAINZAREN ETIKA GARATUZ, ETA EMAKUMEEK ETA GIZONEK LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA ERANTZUNKIDETASUNEZ BATERATUZ.						
1. Programa. Zaintzaren Etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratu udalerrian						
<p style="text-align: center;">1. Programaren Helburua:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baldintzak sortu udalerritik edo lurraldetik sustatu ahal izateko hausnarketarako eta lanerako guneak zaintzaren etikaz eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeaz jarduteko</li> </ul>						
JARDUKETAK	Jarraipen adierazleak	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Bateratzearen aldeko Tokiko Itunaren beste fase batean parte-hartzea sustatu eta bultzatu, NFBik diseinatu eta garaturiko lan-metodologia eta edukiak erabiliz.	<p>Zenbat entitatek eta antolakundek parte hartzen duten Bateratzearen aldeko Tokiko Itunean.</p> <p>Zenbat eta zer motatako jarduera martxan jarri den Bateratzearen aldeko Tokiko Itunean.</p>	BERDINTASUN ALORRA				

ESKU HARTZEKO EREMUA 3. Zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak bateratu						
1. ILDO ESTRATEGIKOA.- HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA ZAINZAREN ETIKA GARATUZ ETA EMAKUMEEK ETA GIZONEK LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA ERANTZUNKIDETASUNEZ BATERATUZ.						
2. Programa. Udalerriaren edo lurraldearen lan-plangintza zaintzaren etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko						
2. Programaren Helburua:						
<ul style="list-style-type: none"> <li>Toki erakundeak diseinatutako lan-plangintza berariazkoa garatu, udaleko gizarte eragileekin batera, zaintzaren etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko.</li> </ul>						
JARDUKETAK	Jarraipen adierazleak	Alorra Arduraduna	2016	2017	2018	2019
1. Sentsibilizazio-ekintzak burutu, baloreen aldaketa zaintzaren etikarantz -gizarte balore moduan ulertuta-, eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzerantz eta zaintza-lanetan gizonek parte hartzearen garrantzirantz zuzentzeko.	<p>Zenbat ekintza eta zer motatakoak bultzatu dituen udalak zaintzaren etika herritarren artean hedatzeko.</p> <p>Zenbat jendek parte hartu duen eginkizunak erantzunkidetasunez batera daitezten sustatzeko, udalerrian diseinatu diren ekintzetan,</p>	BERDINTASUN ALORRA BATERATZEAREN ALDEKO TOKIKO ITUNAREN BIDEZ				

